



**EBAZPENA, 2022KO MARTXOAREN 4KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGO MAILAKO ADMINISTRAZIOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO, MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOETAKO ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO KATEDRADUN ETA IRAKASLEEN KIDEGOETAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN IRAKASKUNTZA-KIDEGOETAKO FUNTZIONARIOEN ERKIDEGO MAILAKO 2021/2022KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN ONARTUTAKOEN, MEREZIMENDUEN PUNTUAZIOAREKIN, ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DITUENA.**

---

Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko administraziooko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen erkidego mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2021eko azaroaren 12an), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 2ko ebazpenaren bidez eman ziren onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda, eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioak argitara.

Aipatutako 2021eko azaroaren 5eko aginduak, hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera, behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak berrikusi dira eta, behar zirenak aintzat hartu ondoren, aldaketak egin dira. Halaber, barematzean atzemandako beste akats batzuk ere zuzendu dira. Akats horien ondorioz, parte-hartzaile batzuek puntuazio handiagoa edo txikiagoa izan dute baremoaren zenbait ataletan.

Horiek horrela, behar ziren aldaketak egin ondoren eta Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduak hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera,

**EBATZI DUT:**

**Lehena.**- Argitara ematea Euskal Autonomia erkidego mailako administraziooko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen erkidego mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko Aginduaren I. eranskinean zehaztutako baremoaren arabera emandako puntuazioa adieraziz.

**Bigarrena.**- Argitara ematea aipatutako kidegoetako karrerako langile funtzionarioentzako erkidego mailako lekualdatze-lehiaketan onartuak izan ez diren parte-hartzaileen behin betiko zerrenda. Onartu ez izanaren arrazoia adieraziko da.



**Hirugarrena.**- Interesatuak gorako errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 4a